UHINAK 2026: EZAGUTZA ZIENTIFIKOTIK ITSASERTZAREN KUDEAKETARA

Posted on 13/10/2026 by Alex Atxa

Category: Albistea
Tags: Itsasertza, Klima-aldaketa, Uhinak

Naider **Uhinak 2026** kongresuan izan zen, Klima Aldaketa eta Itsasertzari buruzko Nazioarteko VII. Kongresuan. Ficobak eta AZTIk sustatutako topaketa urriaren 8an eta 9an egin zen, Irungo Ficoban.

Hainbat herrialdetako adituek **itsasoko eta kostaldeko inguruneak klima-aldaketara egokitzeko** aurrerapenak, esperientziak eta lanak partekatu zituzten.

Egitarauaren zati handi bat **ezagutza zientifikoari** eskaini zitzaion: hitzaldi eta posterretan, arlo honetako azken ebidentziak, ikerketak eta lan-ildoak aurkeztu ziren.

Gobernantzak eta kudeaketa publikoak ere izan zuten tartea. Euskadiko zein nazioarteko administrazioetako arduradun eta teknikariek azaldu zuten nola ari diren egokitzapena lantzen plangintzatik eta erabakiak hartzeko prozesuetatik.

Mahai gainean jarritako beste gakoetako bat **komunikazioa** izan zen: aurrean ditugun erronkak herritarrei eta inplikatutako eragileei argi eta garbi azaltzea, egokitzapen-neurriak abian jartzeko behar diren babesa eta inplikazioa lortzeko.

Hausnarketa horiek zuzenean lotzen dira Naiderrek AZTIrekin eta Ihoberekin batera egiten duen lanarekin: **klima-arriskuak** eta Euskadin egokitzapenean aurrera egiteko behar diren ekintzak aztertzea.

Uhinak, gainera, aukera ona izan zen **ezagutza zientifikoa administrazioen errealitatearekin lotzeko**. Bi esparru horiek gero eta estuago aritu behar dute elkarrekin, klima-aldaketaren inpaktuak hobeto ulertzeko eta, batez ere, horiei aurre egiteko neurrietan aurrera egiteko.